

Elkano

Lau ekitaldiko opera, lehen aldiz argitaratua

SERAFÍN BAROJA

Edición de Patricio Urquizu

PERTSONAIAK

ELKANO
MAGALLANES
LAGO (Blanca de Luzón)
RABELO, paje
OFIZIAL
JUEZ
ALPAKO
SUGBU
MANBAY
MOLUKO
SANBALAOAN
BARNAA
BATHALA

Espainolak
Indioak
Koroa

AKTO 1

f. 1

LEHEN ESZENA¹

- KOROA:** — (*Espainolak*) Oh, zu, gurutze garai, egur santua,
Lurrean oina, zeru argian burua,
Beso maiteak ezker eskui zabaltzen
Laztan batean dezu mundua uztaitzen².
- SUGBU:** — Bagio³ beltza naiz.
- SANBALAOAN:** — Ni lur ikara⁴.
- MOLUKO:** — Ni naiz arrats.
- ALPAKO:** — Ni nau<k> mendi dardara⁵.
- ESPAINOLAK:** — Zu, naiz eguzki ta izar argienetatik
Argiyen argiyena izanagatik,
Begiyeztat zerade gozo ta atsegin,
Biyotzentsat esperantz⁶, penen sendakin⁷.
- BARNAA:** — Ni naiz eriotz gorra, bengantz iraitu,
Gure Jainko Bathalak bigaltzen gaitu⁸.
- ESPAINOLAK:** — Gurutzea petxuan, ezpat gainean,
Ontzien proran, estandarlean⁹
Sedaz egina, bi egur, burni edo arri,
Altxatzen zera denen kontsolagarri.

¹ Ohar eszenografikoa *Conducción de la cruz. Trompetas y cañonazos: detrás Magallanes, etc.*

² Aldaera f. 10: *Gurutze garai, aingur omenti, zuhaitz dohatsu, santua,
Oina daukazu sustrai lurrean, zeru argian burua,
Itsaso beirak, mendi ta inguru besoak zabalik zaitzen
Dezu guzia. Laztan batean dezu mundua uztaitzen.*

³ Bagio (< *Baguío*, huracán, voz de Filipinas, *Diccionario de la Real Academia Española*, 22 ed. Madrid 2001, T. I, 271).

Aldaera f. 10: *Bagio beltza naiz ni, banator.*

⁴ Aldaera f. 10: *Guazen, ni naiz lur ikara.*

⁵ Aldaera f. 10: *Ni mendi erraien dardara.*

⁶ Ohikoa du S. Barojak —a organikoa kentzea.

⁷ Aldaera f. 10: *Zuk naiz argitu urrezko izarpil guziak bainon geiago,
Ta zure inkarrak eguzkiarenak bainan askoz distiago,
Begiarentzat zerade atsedean, magala esperantzarentzat,
Penen ta arantzen atsegin biguin, pakea biyotzarentzat.*

⁸ Aldaera f. 10: *Ni naiz odola, sua, hilkitza, gorrot irakin, zorrotza,
Bathalak, gure jainkoak diyo, Espainolak eriotza!*

⁹ Aldamenean parentesi artean «goiko».

MAGALLANES: — Eguzkia ta izarrak dira ezkututzen,
Zu¹⁰ ez, nerekin zaude, ez nazu ukatzen¹¹.

INDIOAK¹²: — Bagioa. Arratsa. Lurren ikara.
Eriotza. Bengantza. Mendi dardara.

RABELO: — (*Paje a Lago*) Magallanes¹³ da hori, noble ta aundia,
Itsas zabal aundien agintaria,
Ain da guziz txikia mundua orrentzat
Bilatuko ote duen nago besteren bat¹⁴.

MANBAY: — Baliteke. Nork daki? Mundu bat bada or,
Nundik ez dan etorri oraindano inor.
Indiyo likits abek zerbait dabilte¹⁵,
Nere protxuan bada, or konpon ditez¹⁶.

RABELO: — Gurutzetu arentzat¹⁷ dituzu arantzak,
Odola, izerdi, iltze, lantzada, llagak,

¹⁰ Aldaera, f. 8: *Egur santua ezbeinere zu ezerk ez zaitu azpiratzen.*

¹¹ Aldaera gainean: *nazu anparatzen.*

Aldaera f. 10: *Izar ta eguzki, urre biziak naiz izan, dira ezkututzen,
Zu ez beinere, egur santua, ezerk ez zaitu hanatzen.
Jaso bazinan Jesus onentzat iltzez ta ozinez josia,
Ordu ezkeroztik guretzat zera poza, esperantza, saria.*

¹² Eskuzkribuan: «*Los indios*».

¹³ Aldaera, f. 8: *Zein da, zein dan hori? Magallanes, itsastar noble ta aundia,
Norteko gurutze Egoko zerupeen gidaria,
Parerik gabe. Ain da txikia mundua gizon orrentzat
Bizitzen bada bilatuko beste mundu berriren bat.*

Aldaera f. 11: *Zein da, jaun hori, zein? Magallanes! Berdingabeko aundia,
Norteko izartik Gurutze Egoko, itsasoko neurlaria,
Orbe ezaguna ain da laburra lenarkitzale orrentzat,
Arnas batean bilatuko du beste mundu berriren bat.*

¹⁴ Gainmarradurek bertsoa nahas dezakete, baina errimek aginduta osatu dut.

¹⁵ Aldaera, f. 8: *Indiyo abek zerbait dabilte, traiziyozko lan beltzak,
Nere protxuan badira, or konpon, lan egizute, zakurrak.*

¹⁶ Aldaera f. 11: *Beste mundu bat ez det ukatzen, badakit nik badala or,
An edo emen nundikan ez dan oraindik bueltatu inor,
Emen pilaka dira zintzoak, denak eranaiaik gerade,
Bainan beltz abek beren lanean zintzoagoak dirade.
Ez dakit zein da, ez zait gustatzen, arpegia du faltsoa,
Arraza ez da beintzat Victoriyakoia, ta itxura txarra,
Indiyo abek zerbait dabilte lan beren gisan kanborrak (Gainmarratua:
beltz beren gisakoa,)*

Nere protxuan badira, or konpon, lan egizute erlabioak / listorrak.

¹⁷ Aldaera, f. 8: *Vushu arentzat izandu zinan iltze, odola, erra,
Eta guretzat kontsueloa, poza eta esperantza ederra.*

Ordu ezkeroztik zera¹⁸
Kontsueloa, poza ta esperantz eder¹⁹.

RABELO: — (*Paje*) Hori da nere osaba. Rabelo<k> esana,
Victoria, gure ontziko kapitan jauna²⁰.

MANBAY: — Kapitan ta agintari geiegi dira
Bainan itsasoak du falsoko bira²¹.

RABELO: — (*Paje por Manbay*) Ez dakit zein dan, begia du faltsoa²²,
Ez da beintzat gure ontzi Victoriakoa.

f. 2

ELKANO: — Gurutzea, gizonak, eginik bi arrai,
Bat goitik bera, bestea erakai²³,
Idiki du aurrean leio argia,
Nundik sartzen dan zeruko argi zuria²⁴.

RABELO: — (*Paje*) Elkano itsastar maisu balienteena,
Beti zintzo, beti on, beti aurrena²⁵.

(*Suena una descarga de flechas y piedras. Alaridos. Algunos españoles caen. Gran desorden.*)

KORO: — Kantatutzera indar aundiko desio batek narama,
Kontxesi, zuri nai dizut eman mereziya dezun fama.

¹⁸ Gainmarraturik: *Jesus Justua, esperantz eder.*

¹⁹ Aldaera f. 10: *Gurutze ederra, gizonak noizbait bi arrai somariturik,
Bat goitik bera, bestea etzana ezker eskuia loturik,
Idiki zuen mundu beltz ontan zorioneko leioa,
Nundik sartzen dan zeruetatik datorren kontsueloa.*

²⁰ Aldaera, f. 8: *Hori, Rabelo, nere osaba da, gizon prestua, una,
Gaur gure ontzi Victoriyako kapitan ernai deguna.*

Aldaera f. 11: *Hori, Rabelo, da nere osaba, gizon prestua, zintzoa,
Gaur gure ontzi Victoriyako kapitan otsandikoa.*

²¹ Aldaera, f. 8: *Emen guziak dirade ernaiak, agintariak lenendik,
Eta Indiyuak beren lanean ernaiagoak oraindik.*

²² Aldaera f. 8: *Ez dakit zein dan, ez zait gustatzen begia du ondo faltsoa,
Ez du itxura txit ona, ez da beintzat Victoriyakoa.*

²³ ezker eskuinera.

²⁴ Aldaera f. 9: *Gurutze ederra, nork aurreneko eginik orduko bi arrai,
Bat, gotik bera ezker eskuira, bestea berriz erakai,
Idiki zuen mundu triste ontan zeruetako leioa,
Nundik sartzen dan gizonarentzat zeruko kontsueloa.*

²⁵ Aldaera f. 9: *Hori da Elkano itsastar maisu gaur danik balienteena,
Beti zintzoa, biyotz noblea, itsas ganean aurrena.*

Aldaera f. 11: *Hori da Elkano itsasmaisua, marinel suardeena (Gainmarratua:lemari ba-
lienteena)
Ontzigidari neke gabea, gau ta egun beti aurrena.*

ESZENA 2

- BARNAA:** — Oh, gure Bathala, emen gera, bengantza.
- LAGO:** — Aita, nerea.
- BARNAA:** — Maktan, anaiak, da gure jauna,
Ta Maktan da gure erregea.
Eriotza espainolai, anaiak,
Sua ta hilkintza betiko²⁶.
- MAGALLANES:** — Espainolak, aurrera nerekin, denak jo gogor²⁷.
- MANBAY:** — Eriotza ta odola,
Odol tartean nabil beti gustora.
- (Lucha)
- MAGALLANES:** — Gurutzea, ar nazu, hiltzera noa²⁸. (Cae)
- BARNAA:** — Nere eskuetan²⁹.
- ELKANO:** — Doilor, zikoitz faltsoa, zure bizia bear det³⁰.
- RABELO:** — (Paje) Ta nik lenago³¹. (Lago cae herida de un flechazo. Mata a Barnaa)
Hil ari, beltza. (Le hieren)
Jesus, Jesus. Oh, Lago! (Cae sobre Elcano. Ve a Lago)
Zer ikusten det, Lago eritua, agian hila.
Elkano, mesede aundi bat eskatzen dizut,
Salba zazu Lago³².

²⁶ Aldaera, f. 12:

*Gora lagunak, traizioa, anaiak, Aita nerea,
Gure Jaungoikoa da Bathala, Maktan da gure erregea.
Hil bitez espainoltarrak, hilkintz gorria...*

²⁷ Aldaera f. 12:

Espainolak, aurrera nerekin, aurrera beti, jo gogor.

²⁸ Aldaera f. 12:

Gurutze santu, zugana nator, ar nazu, hiltzera noa.

²⁹ Aldaera f. 12:

Nere eskuetan. Ori zu, jauna. (Le hieren.)

³⁰ Aldaera f. 12:

Doilor, erabe, faltsoa, zure bizia bear det bertan.

³¹ Gainmarratua: *ere*.

³² Aldaera f. 12:

*Ta nik bear det lenago (Rabelo y Lago caen heridos)
Hil ari, beltza. (Mata a Barnaa). Jesus!*

RABELO:

Agian hila... Lagun nerea... mesede aundi bat, Elkano, eskatzen dizut.

ELKANO:

Nai dan guzia.

RABELO:

Salbatu zazu Lago.

ELKANO:

Zein da Lago hori? (Rabelo muere señalando a la india)

SUGBU:

Au, hume au da. Hire besoetan artzak,

Ta segi neri espanitarrak,

Benga azkigun lagunak,

f. 13

Eta bengatu ondoren geraden eramatera

Ontzira denak, hil edo eritu, espainol onak aurrera.

ELKANO: — Zein da Lago? Hori da, hume auxe,
Ar ezazu besoa eta atoz,
Itsastarrak nerekin guziak
Hil ta eritu guziak altxa,
f. 3 Eta bengatu ondoren guziak
Ontzira denak eramatera.
Espainitarrak, aurrera!

AKTO 2

Camarote en la Victoria

ESZENA 1

Sugbu, Moluko, Alpako, Samaloan eta Lago

SUGBU: — Zu, Lago, gaiso eri da orrekin
Egon zeraden epean,
Gure bengantzak egan joan dira
Gure deseatu naiean,
Len bost ontzi espainolak zituzten
Gaur bakar bat, Victoriya,
Besteak³³ galdu betiko.
Zantz³⁴ au daukate guziya.
Magallanes hil zan eta arekin
Sei edo zortzi ganera,
Ta geroztik hil dira ogei t´amar,
Pilan joan dira urpera,
Ontzi ontan guaz Espanira
Elkano dala kapitan.

LAGO: — (*Aparte*) Elkano<k> hil zuena nere aita?

SUGBU: — (*Vacilando*) Bai, bai.

LAGO: — Hori zan?

SUGBU: — Hori zan.

LAGO: — (*Aparte*) Ezin det sinistu.

SUGBU: — Bai, Elkanok hil du zure aita.

BESTEAK: — Ala da.

³³ Gainmarraturik: *Trinidad, Concepción, San Antonio ta Santiago.*

³⁴ *Zantz* 'amparo' parentesi artean.

- LAGO:** — Orduan mendekatuko gera.
- BOSTAK:** — Bengantza gogorra bear da.
f. 4
- SUGBU:** — Bagio beltza naiz ni itsasoan.
- SANBALAOAN:** — Eta ni naiz lur ikara.
- MOLUKO:** — Ni naiz arratsa, ni naiz eriotza.
- ALPAKO:** — Ni mendi erraien dardara.
- LAGO:** — Noiz izango da ordu eder hori?
- SUGBU:** — Laster ontzi onen jabe nagusi
Gu egingo gera bostak bakarrik,
Espainol bakar bat gabe.
- SANBALAOAN, MOLUKO & ALPAKO:** — Ta bueltatzean gure ugartera
Maktan gure erregeari
Emango diogu tesoro aundi bat
Guk biak gorde deguna.
- LAGO:** — Tesoro³⁵ aundi bat.
Bai, Timorko urrea,
Ceilango perlak³⁶, nakarrak,
Zilar, diamante³⁷, joiak, preseak.
Eta nolatan dira gurekin?
- SANBALAOAN, MOLUKO & ALPAKO:** — Itzuli ginan irurak
Mazaguako errege aren
Espainolaren lagunak,
Bagenegikun Sugbu emen zala
Eta arrats batean onera
Etorri ginan gure bengantza
Zuekin laguntzera.
- LAGO:** — Bathala Meikaphal da gurekin.
Noiz izango da ordua?

³⁵ Alboan: *Urrezoro*.

³⁶ Gainmarraturik eta ordez: *Altisti*.

³⁷ Alboan: *Artargi?* = *diamante*.

ESZENA 2

Dichos y Manbay

- MANBAY: —** Iritsi orduba, indiy oak,
Iritsi da momentua.
- f. 5** Zuek bostak ta ni seigarrena,
Badakizkit zuen ideak,
Orain bertan beteko dirade
Zuenak eta nereak.
Badakit ez zerala gizona,
Badakit ederra zerala,
Badakit adorutzen dezula
Jainko bat Meikaphal Bethala.
- MOLUKO: —** Galdu da guretzat gaur bengantza.
- SUGBU: —** Baliteke agiyan bigar.
- SANBALAOAN: —** Libra gaitezen gaur onen gandik.
- MOLUKO: —** Oraindik salbatu gindezke. (*Moluko se escapa de una porta*)
- MANBAY: —** Bai, nere ederra, nere lagunak,
Gurea da Victoriya.
Izpi onetan Elkano bera
Txalupa aundian dijoa,
Timorko islara mantenu bila,
Utzirik sei gizon emen,
Sentitzen ditut jaxten dirala
Jabeak gera guziyen.
Sei gizon oiek hilko ditugu,
Ez daude bada agertuak,
Geraden, bada, segi nazute
Ni naiz nagusi, indiy oak.
- LAGO: —** Ez degu oraindik ezer erantzun,
Bainan erantzungo dizut,
Ez det nai ezer zurekin izan
Ta ez zera emendik irtengo.
- MANBAY: —** Arratsa likits, miserableak,
Ikaragarritzko txinuak,
Atzera denak, ni naiz kapitan
Nik agintzen det txinuak.

f. 6

ESZENA 3

Moluko, Elkano, Marineros

ELKANO: — Atz eman zaiozute bereala
Gizon faltso, erabe orri,
Eta eramango degu gurekin
Islan izango zera nagusi.

(Lo prenden. Lucha Moluko herido por Manbay)

Lago, semea, nere mutila,
Zu beti leiala ta ona,
Gaur zure gatik gure ontzia
Ikusten det salbatua.

LAGO: — Neregatik.

ELKANO: — Bai, indiyu au zuk
Ez baninduzun bigaldu,
Manbayen traiziyoa abisatzera
Denak ginan gaur galdu.

Adiyo, nere seme leiala,
Orain seguru banoa,
Gelditu zaitetz ontzien jabe
Bueltatatu arte, semea.

ESZENA 4

Lago eta Moluko

MOLUKO: — Lago nerea, hiltzera noa,
Edadeak, ur golpeak
Manbay faltsoak eman diraden
Errenditzeko golpeak,
Admia³⁸ zazu, tesoro ederra
Mazagua erregearena.

f. 7 Aldameneko gelan gordea daukat
Ori zu giltza, bainan zinegin
Bear nazu³⁹ emen bertan
Tesoru ori bear dezula
Gastatu gure bengantzan.
Juratzen nazu?

³⁸ *Admia*, *Admira* ?³⁹ *Bear nazu*. Kostaldeko adizkera (NOR-NORK) XVIII. mendeaz geroztik bederen. *Behar di-dazu* (NOR-NORI-NORK), beharko luke.

- LAGO:** — Bai, juratzen det,
Bengatuko naizela gogor
Nere aita hil zuenengandik.
- MOLUKO:** — Hil ninteke, Lago. Agur.
- KOROA:** — Gurutze⁴⁰ garai, aingur omenti, zuhaitz dohatsu, santua,
Oina daukazu lurrean sustrai, zeru argian burua,
Itsaso, mendi, ibai, inguru besoak zabalik zaitzen,
Dezu guzia, laztan batean dezu mundua uztaizten.
- SUGBU:** — Bagio etoia naiz ni, banator.
- SANBALAOAN:** — Guazen, ni naiz lur ikara.
- MOLUKO:** — Ni banoa, ni naiz arratsa.
- ALPAKO:** — Ni mendi erraien dardara.
- BARNAA:** — Ni naiz odola, sua, hilkintza, bengantz, erakin, pozoitu,
Jainko gureak⁴¹, diyo, espainol denak lezoitu.
- f. 8 Zuk naiz argitu zarpil guziak bainon geiago,
Zure errainuak eguzkiarenak bainan askoz distiago,
Begiarentzat zerade atsedean, magala esperantzarentzat,
Penen ta arantzen atsegin gozo, pakea biyotzarentzat.
- f. 13

AKTO 3

Lago (D^a Blanca de Luzón), eta Sugbu Valladoliden

ESZENA 1

- SUGBU:** — Lago, Jainkoa! Zeren ederra!
- LAGO:** — Barkatu bezait, zer?
Zuretzat beti Lago izango naiz.
Bestentzat Blanca de Luzón,
Bainan naiz paje Elkanorena edo dama goitubena
Beti izango naiz bengatzaile bat Espainol arraz denena.
Gure bengantza gaur osatzen da, ta zer bengantz gozoa!⁴²
Kortesanoak denak diote Elkanori gorrotoa,

⁴⁰ Errepikatu egiten da zenbait aldaerekin Lehen ekitaldiko lehen eszenaren hasiera.

⁴¹ *Bathalak*, gainmarratua.

⁴² Gainmarratua: *gogorra*.

Ezin ikusirik aren fama inbidiyaz urtzen dira,
Batzar batean jarriko diozkate ainbeste gezur eta zelat,
Progatu nairik Elkano dala lapur, erabe, koldar⁴³ bat.

f. 14**SUGBU:** —

Gezur etoia!

LAGO: —Guri zer zaigu? Bere jaioterrikoak
Agirian jarriko dizkate eginte itsusi txarokoak.**SUGBU:** —Errez probatu lezake Elkanok gezurra dala guzia,
Eta beti aurren eman duela lagunarentzat bizia.**LAGO:** —Proba lezake, bainan zepo bat preparatu diot nik,
Nun zalantz gabe eroriko dan betiko deshonoraturik.**SUGBU:** —

Zer egin dezu?

LAGO: —Bere etsaiak aitortu ditut erabat,
Gure etxean dauzkala Elkanok urrespil aundi gogor bat,
Batzarrak bertan bigalduko du,
Justizia guregana, kutxa aundi ori idikiko du.**SUGBU:** —

Alferriketako lana. Or ez du ezertxo bilatuko.

LAGO: —Bilatuko du Molukok neri emandakoa,
Eta or jarriko deguna.**f. 15****SUGBU:** —Oh, izutzen naiz. Elkano hilko da! Hilko du lotsak⁴⁴...**LAGO:** —

Hil... hilko dala. Ez zuen berak hil nere aita?

SUGBU: —Egia. (*Jakingo balu gezurra dala*)**LAGO:** —

Zer pentsatzen dezu, Sugbu?

SUGBU: —

Pentsatzen gaur bengantza daukagula seguru.

LAGO: —Bereala bada kutx ortara pasa zazkigun bi kaja,
Bada gaur bertan etorriko da entzundetik justizia.
Ni bitartean nere jazkaia betikoa jantziko det,
Ta itxongo degu gure bengantza. Ainbat sufritu nezaket.*(Sugbu lleva las cajas)*⁴³ Gainmarratua: *likits*. Parentesian: (*collon*).⁴⁴ Gainmarratua: *orrek bai hilko duela*.

- SUGBU:** — Emen bizi duk Elkano jauna?
- OFIZIAL:** — Emen bertan, baina oraindik ez da bueltatu⁴⁵.
- SUGBU:** — Eman zaiozu, eman bakarrik
Kutxaldi eder bat, baliyosoa,
Elkano, galduba zera,
Zure omena dijoa gaur itzaltzera.
- f. 16** (*Laisterka Sugbu, Elkano dator*)
Bukatua dago dena.
- LAGO:** — Ekatzu giltza.
- SUGBU:** — Orizu, Lago.
- LAGO:** — Zoaz.
- SUGBU:** — Banoa. Zer pena!
- LAGO:** — Bengatutzera noa txit laster,
Bainan nere biyotz dena
Alaiatua iduki bearrean
Sentitzen du etsimena.
Elkano dator, beti bezela,
Otzikara batek nau artzen,
Nere petxua gorroinka dabil,
Arpegia zait bekartzen.
- ELKANO:** — Lago nere semea, negoan deseatua etortzeko
Zure ondora, eta zurekin bakarrik hitz egiteko
Eta arpegia begiratzeko ase arte.
Ematen nazu neurrigabeko poz bat aundia ontarte.
Nere semea, nere laguna, bear dizut konfiyatu sekreto
bat.]
- LAGO:** — Neri?
- ELKANO:** — Bai. Humetzat artuko nazu⁴⁶, erotzat,
Bainan esan bear dizut gauza bat.
Enamoratua nago.

⁴⁵ Gainmarratua: *bainan ez dago*.

⁴⁶ Oharra aldamenean: *suponer: ifrentzatu*.

Aldaera: Naiz erotzat artu, naiz zorotzat

Aditu nazazu, Lago.

LAGO: Aditzen zaitut, sekretu hori.

ELKANO: Enamoratua nago.

f. 17

LAGO: — Enamoratua. Norbait maite, arekin pentsatu,
arekin loak artu,
Arekin esnatu, arekin bizi, arekin hiltzea deseatu.
Hori da enamoratua egotea.

ELKANO: — Bai, bai, zuk esan bezela,
Dena eman, dena eskini, bizia.

LAGO: — Dezu inor orrela?

ELKANO: — Bai.

LAGO: — Zein?

ELKANO: — Aingerurik ederrena.

LAGO: — Aingerua zerukoa.

ELKANO: — Bai, kontatuko dizut, nere humea, neri gertatutakoa
Eranegun nijoala karrikatik
Ikusi nuen ertentzen Txanzileriko jauregitik
Dama eder bat nere bi etsai gorrotatuagoen erdian.

LAGO: — [*Aparte*] Oh, bai, ni nintzan, zer sentitzen det,
Zer da nik inoiz gozatu ez detan alegeri aundi⁴⁷ au?

ELKANO: — Iduritzen zitzaidan zerua ikusten nuela,
Eta gelditu nintzan arritua, itsua,
Pasa zan ta galdu nuen.
Bainan galdetu nion bati
Zein zan eta esan zuen,
Doña Blanca de Luzón da dama eder hori,
Colonen lagun eta Indietako printzesa baten alaba⁴⁸,
Zeren ederra! Zenbat maite detan!

f. 18

LAGO: — Oh, Elkano, maite dezu.

ELKANO: — Lago, nere humea, ez nazazula orrela begiratu,
Zergatik bere edertasunak ala saturatu
Dizkit biyotza, anima eta begiak,
Eze zure arpegian ere ikusten det arena<k>.

LAGO: — Ikusten dezu.

⁴⁷ Gainmarratua eta ordezk gainean: *ugainti (inundante)*.

⁴⁸ Gainmarratua: *dama aberats bat... Cristobal...*

- ELKANO:** — Bai, gainera gaur bertan ikusi det Txanzileri ara
Joan naizenean Tribunal orren aurrera,
Zoroa naizela esango dezu,
Iduritu zait begiratu nauela.
Lago, nere humea, esaten dizut maite detala,
Eta ez detala beste inor maiteko.
Nere biyotzak artutzen
- f. 19** Du gustora juramentu au.
Oh, Blanca, zu ere maite zaitut nere Lago.
- LAGO:** — Eta tribunal hori?
- ELKANO:** — Zer zait neri, nere barrena trankil badago?
Erantzun diotet leialki egin dizkitetan galde zelatariai,
Bainan zer zait hori guzia?
Blanca, oh aingerua!
- SUGBU:** — Elkano jauna, Juez bat or dator berorri eskatzen duela⁴⁹.
- LAGO:** — Galdua da betiko.
- ELKANO:** — Aurrera, denak pasa ditezela.
- JUEZ:** — Justiziyaren honran ta izenan nator ni zure etxera,
- ELKANO:** — Ondo etorria, honratzat daukat, emen nagusi zu zera.
- JUEZ:** — Pauso bat emango det.
- ELKANO:** — Agindu zazu, nik dakit obeditzen bakarrik.
- JUEZ:** — Kutxa eder hori ikusi nai det bakarrik.
- ELKANO:** — Lago, giltza bereala. Nere biyotza zait estutzen.
- SUGBU:** — Bengantza izugarria orain degu murutzen.
- KORO:** — Aundi nai orren antuste aundia orain da dena irauzi,
Lurperatua izango zera, orain ez zera nagusi.

(Juezak ateratzen du kaja eta etortzen da aurrenera eta ateratzen du xapeleta)

- JUEZ:** — Zer ikusten det?
- KORO:** — Orain da gauza.

⁴⁹ Gainmarratua: *Kontzejuko jendearekin.*

LAGO: — Galdua da. Nik galdu det.

JUEZ: — (*Letu ta gero ateratzen du ezkutu bat*)

Zu, Juan Sebastian Elkano, nere eskuen bidetik
 Errege aundiak kutxatxo ontan ematen dizu gloria,
 Emen urreaz daukazu egina zure famaren adia,
Primus me circumdediste, esan dizu enperadoreak
 Ona nun dauden urrez jarriak, jaunak, ona eraudeak.
 Izango zera beti aundia zure famaren gaizetzat,
 Elkano aundia, adiyo jaunak, gabiltzan gure nai onak zuretzat.

f. 21

KORO: —

Glori aundia, omen ederra Elkano famosoari,
 Glori aundia, omen ederra, gloria Magallanesi,
 Oh Lago, Elkano, nere semea beldur aundia zenuan,
 Beldur aundia ta zuk Lago, nik pentsatzen nuen Blancagan⁵⁰.

AKTO 4

Cubierta de un buque. Tempestad

ESZENA 1 Sugbu eta Lago

SUGBU: —

Lauak oraindik salba gindezke
 Ontziak duben botean,
 Gure itsasoetan arkitzen gera,
 Lurrak ditugu urrean.

LAGO: —

Ezin litezke itsaso onekin,
 Seguruago gaude emen,
 Botean lauok hilko ginake
 Ontzi gainean bainon len.

SUGBU: —

Gure ugarteak bertan ditugu,
 Botea da segurua,
 Hirurak gera fuerteak eta
 Itsas jaitera eginak.
 Oh, Lago, ez zaitut emen utziko
 Neretzat zerade dana.
 Zu, nere humea salbatzea da
 Nere aurreneko lokana.

⁵⁰ Bi azken bertsoleroak ez daude argi, eta beste batzuek gainmarraturik daude.

Ondoren Gipuzkoar marinel zerrenda dator gainmarraturik sorlekua adieraziz: *Juan de Echai-de (Donostia), Domingo de Arriola (Deba), Juan de Agirre (Deba), Domingo de Amasa...*

f. 23

ESZENA 2

ELKANO: — Gogorra dago itsasoa ta gogorra dago zerua,
Lan aundia emango digu arrats koleratua<k>.
(*Da órdenes con una bocina. Detrás de él los indios aterrados. Ruido, gritos.*)

SUGBU: — Marinelen itzuli eritua,
Indiyo erabe, likits, kaio doilorra,
Hilari bertan iges nai uben
Egin abere faltsoa.

LAGO: — Oh, nere Sugbu, nere lagunak,
Eritua dago,
Infernuetan egon bear luke
Ez, ez, barka zaiozute.

ELKANO: — Eldu (*Da órdenes*).
Hiltzera noa, Lago,
Ez zuen hil zure aita Elkanok.

LAGO: — Zer esan dezu?

ELKANO: — Egia, ez zuen <hil>.

LAGO: — Orduan, zeinek?

ELKANO: — Rabelok.
Estalpe misterioso, ni bakarrik,
Nere anima bakarrik,
Nere espiritua bakarrik,
Beste izate eta beste gauzetatik,
Beste espiritu oietatik separatua,
Ez naute ligatzen gauz oiekin
Beren oiua, beren orroak besterik.
Ezer ez nere sentimentuakin,
Atomo banatuak guziak,
Mundu bizi separatua.
Baten salbazioa bestearen galkera,
Denak salbatu naiean naiz beste guziak hil.
Zer soledadea!
Oh, Blanca nerea,
Ez dezu sentitzen zure leizian nerea?
LAGO: — Bai, sentitzen det, Elkanok.

ELKANO: — Ala balitz nerekin egongo zina.

- LAGO:** — Zurekin nago.
- ELKANO:** — Oh elementuak! oh mundua!
Bada zerbait zuek bainon aundiagoa
Gizonen barrenen gordea.
- f. 25**
- AIZEAK:** — Zer nai digute gipuztar oiek?
Gure egoak kateatu?
Gurekin neurtu leian ta gure
Orroengandik burlatu?
- ITSASOAK:** — Espainiako lurbira txikarren
Seme zoro, kazkarrenak,
Zer darabilte gure gainean
Izan nairik beti aurrenak?
- ZERUAK:** — Laino, brum beltz, odoiaz eleak
Naiz ipini eragotzat,
Euskaldun oiek beti aurrera
Dijoaz. Nora dijoaz?
- BALEAK:** — Itsas denetan dabilta jartzen
Beren semeen izenak,
Gure bizkarran aurrenekoak
Bezela burni arpoienak.
- Guri jarraika donostiar bat<ek>
Orain sei sekul jo zuen
Terranobako lurra aurrena,
Izena zuen Etxaide.
- f. 26**
- GUZIAK:** — Mundu guzian biziko dira
Munduak ez badu buka,
Elkano, Okendo, Lezo, Legazpi,
Urdaneta ta Txurruka⁵¹.

[HEMEN BUKATZEN DA OPERAREN ESKUZKRIBUA]

⁵¹ Azpian beste luma molde itzalagoz:... *Amasa, Lazcano, Mujika, Urdaneta ta Legazpi, Garro, Aramburu, Alaga, Iturain, Lizarraga ta Rekalde, Machin, Isasti, Oquendo biyac, Zubieta ta Ugalde.*